

Nola esango nizueke?

Nirea panpin baten jakinduria da, hutsa, botereari besarkatutakoa.

Nork hitz egiten du? Nork sentitzen?

Ixiltzen naizenean, baiesten dudanean, baita oihu egiten dudanean ere.

Ematen dudan salto bakoitzak sakonago hondoratzen nau.

Zer gertatzen da? Zer nahi dute? Nondik dator zarata guzti hau?

Nola esango nizueke?

Gerran gaudela gertatzen da, gerraren zarata da hau.

Irabazi eta preso guztiak ezereztu nahi dituzte.

Ikuskizuna amaitzean, bazter ilunenetik gaua eder egiten denean, orduan aurrementitzen dut, orduan susmatzen dut...

Beldurgarria izanik ere bada zerbait, arnas har dezaket orain, nire ahoa berreskuratzen hasi naiz.

Munduko panpinok... lehendabizi, sabeliztuna akatu.

N.A.Z.K.A. ez dira sigla berriak,
nazka da.